



Bigarren Jardunaldi Internazionalistak- Sokoia II

“EUROPAKO EZKERRAREN ADIERAZPENA”

INTERNAZIONALISTA JARDUNALDIETAN PARTE HARTU DUTEN EZKER MUGIMENDUAK “SOKOA-II”

Diseinatzen ari den neoliberal, antidemokratiko eta inperialista Europa honetako lau funtsezko gai eztabaidatu ostean:

- 1.- migrazioak,
- 2.- zerbitzuen liberalizazioa,
- 3.- atzerri politika eta
- 4.- herrien subiranotasuna

Adierazten dugu

Inperialista, baztertzailer eta polizial Europa honetako konstituzioari, elite eta estatuetako talde, kultura gutxituak eta herrietako eskubideak beste eragileen menpe uzten duenari aurre egitea behar larri eta nagusia dela adierazten dugu.

Horretarako, egungo inperialista globalizazio fase honetan, Europako Batasunean parte hartzen ditugun herri eta nazioetako estatudun edo estaturik gabeko ezkerreko indar politiko zein sozialen arteko hitzarmena lortzeko arrazoi eta espazioak sortzea ezinbestekoa da. Hitzarmen honetan bere subiranotasun eta dignitatearen alde borrokatzen duten beste herrietako eragile eta mugimenduek ere parte hartu behar dute.

Eta esandakoari jarraituz, eztabaidatutako atal bakoitzean ondoko ONDORIO ETA AKORDIOAK hartzen ditugu:

1.- Egungo europar gotorleku inperialak eta bere estatuek MIGRAZIO ETA ASILO ESKUBIDEARI egiten dioten erasoaren AURREAN :

Gizon emakumeen historian migrazioak fenomeno iraunkorra dela pentsatzen dugu. Hala ere, mendebaldeko kolonizazioaren ondorioz, esklaboak eta halabeharrezko leku aldaketak, estatu garaikideak eta kapitalismoa sortzeko oinarriko baliabideak izan dira. Egungo inperialista globalizazio fase hau oinarriko arazoia da bai planeta orokorrean dagoen pobrezia, bai gatazka politikoak, bai kulturaren uniformetasuna, bai bio-dibertsitatearen hondamena sortzerakoan; gai hauek zuzentzen dituzte milioika pertsonako migrazioak, leku aldaketak eta erbesteraketak. Gai hauek ere herri eta nazioetako estatudun edo estaturik gabeko ezkerreko indarrok behartzen gaitu mundu mailan migrazio eta erbesteraketa sortzen dituzten kultura, ekonomia eta politika eragileen kontra borrokatzera.



Hiritartasun, egoitza eta nazionalitate eskubideak oinarrizko eskubideak dira, zeinen kontrol eta kudeaketa herri eta nazioetako estaturik gabeko estaturik gabeko eskuetan egon behar duten. Aldi berean, hizpide hauek emigratzaile eta erbesteratu talde zein pertsonekin partekatu behar ditugu, baita euren jatorrizko herriekin ere.

Era berean, egungo Europako Batasunean herri eta nazioetako estatu edo estaturik gabeko lurraldeetan bizi diren milioika lagun eta ehunka kolektiboren eskubideen alde borrokatu behar da; berdin du pertsona eta kolektibo hauek nongoak diren: barrukoak edo kanpokoak, hitzarmenak egiteko arrazoi bat izan behar da.

Europako Batasuna zein osatzen duten estatuak sortzerakoan erbesteratu eta emigrante estatusa, pertsona eta kolektibo hauei soilik eragiten dien gaia izateaz gain, hiritartasunaren gaineko ikuspuntu orokor bat ere planteatzen du, non berdintasun eta ezberdintasunaren berme osoak onestea falta den. Egoera honek, orain arte ezagututako, baita euren alde borrokatutako idealak ere, elkarbizitza eta gizarte ereduaren kontraesanak adierazi eta irudikatzen dituenari buruzko eztabaida aberasgarria sortzera behartzen gaitu.

Horregatik eta **lehendabiziko lekuan**, eskubidea demokratiko hauek errespetatzeak eta onartzeak badakar arrazista, murriztaile, sexista eta autoritario politikei eta, politika, ekonomia edo beste moduko arrazoiak direla medio, Europako Batasunaren barru eta kanpoko jatorrizko lekuak utzi behar dituzten pertsona eta kolektiboek egokitutako atzerritartasun, inmigrazio eta asilo baliabideei AURRE EGITEA ETA SALATZEA. Politika hauek, Schengen, Dublin edo Laekengo Akordioetan oinarritutako politikak dira eta egungo europar gotorleku inperialaren eta osatzen duten Estatu gehienek oinarrietan daude.

Bigarren lekuan, ezkerreko indarrentzat, emigratzaile, erbesteratu edo iheslari kolektibo eta pertsonen hiritartasun osoa demokratikoki onartzeak badakar pertsona hauen ESKUBIDEEN ALDEKO AMANKOMUN BORROKA, behintzat, lau politika lan alorretan :

- a) Gizarte eskubideak eskuratzeko, lan eta bizi ahal izateko oinarrizko eskubidearen alde.
- b) Politiko eta zibil eskubide guztiak dituzten subjektuak bezala tratatuak izateko eskubidearen alde. Bertako edo asilotu estatusak errekonozitzeak boto emate aktibo eta pasiboa ez ezik, biltzeko, elkartzeko, manifestatzeko eta parte hartzeko eskubideak bermatu behar ditu, baita nazionalitate bakarra edo banatua izatekoa ere. Politika honen ez diskriminatzaile dimentsioaren testuinguruan, genero diskriminazio/menpekotasun politikaren kontrako borroka lehenetsi behar da, zeinen baliabideek europar asilo eta inmigrazio politika indartu duten.
- c) Erlijio, identitate, hizkuntza eta kultura aniztasuna ezagutu eta errespetatzeko eskubidearen aldeko eta xenofobia eta arrazakeriaren kontrako eta sexu, erlijio, kultura edo nazionalitate arrazoiaren kontrako neurri eraginkorrak hartzea. Elkar bizitzeko ereduak bermatu behar du etorritako



herriaren denonen espazio publikoaren kultura komunaren eta asilotu eta emigratzaileen jatorrizko kulturen arteko bateragarritasuna.

c) Elkarrekiko kooperazio eta solidaritate harremanen bidezko elkarlanaren alde asilotu eta emigratzaile pertsona eta kolektiboen eta egonaldiaren eta jatorrizko herrien eta estatuen kultura, gizarte, sindikal eta politika eragileen artean.

Eta hirugarren lekuan, estatueta eta estaturik gabeko nazioetako ezker aldeko indarrak behartzen gaitu Europako Batasunaren barruan zein kanpoan emigrazio eta asiloa sortzen dituzten politika, ekonomia eta kultura eragileen kontra borrokatzera.

2.- BOLKENSTEIN MEHATXUA.

Zerbitzuak pribatizatzeke europar zuzendaritza

1.- Zuzendaritza berehala kentzeko eskatzen dugu. Sarraski hau ekiditeko garaiz gaude. EBko egungo agintariek europar ongi izatea erabat hondatuko lukeen kale itsu batean sar gaitzaten ekiditeko garaiz; eta hau guzti hau AEBekin berauek ezartzen duten esparruan lehiatzeko asmo zentzugabeagatik.

Horrelako estrategiaren emaitzak ordainduko ditugu europar langileok lan ezegonkortasunaz, bizitza laborala eta lan jarduna luzatuz, bizitza baldintza txarrago eta erabakitzeko gaitasun txikiagoa izanez, gero eta handiagoa izango den gizarte bazterketa eta segurtasun ezaren bidez. . Eta hori guztia munduko nagusitasunari eustearren baliabide publikoak agortuko dituzten Europako multinazional handien interesengatik.

Munduko nagusitasun hori herriei bortizki inposatutako politika ekonomiko harrapari batean oinarrituta dago, zeinek planetako baliabide naturalak hondatzen baititu, aurrerapen teknologikoak jende ugari suntsitzeko arma bihurtzen baititu, herrien kultura komunikabideetan eta militarri desagerrarazi behar baitu, eta bere erabakiak ezartzen baititu gizartea ordezkatzeko instituzio politiko eta sozialen kontrolari inolako jaramonik egin gabe.

2.- Arazoa definitu dugun moduan izaera globalaren dominazioko eduki argia badu, ezinbestekoa da **erasoei aurre egiteko estrategia koordinatuak eratzea eta estrategia erasotzaile koordinatuak politika ekonomikoetan erreferente berriak ezartzeko. Horretarako herritar borroka garatu eta sendotu behar da, ezker indarren, sindikatuen eta langileen mugimenduan militante eta erradikal norabidea bilatuz.**

Gaur egun oinarritzko erreferente politiko eta identitarioa, politika ekonomiko eta sozialen diseinuan gizartearen inplikazioa eta parte hartzea bultzatzea dezakeena, herriak dira. Herriak erakunde autonomo bezala ulertuta; erabakitzeko gaitasunarekin eta autodeterminazio eskubide osoarekin, gai politikoetan, instituzionaletan, ekonomikoetan eta sozialetan.

3.- Nazioarteko harremanen estrategia oinarritu behar dira pertsonen eta herrien ekonomiko, politiko eta giza eskubideak onartzean eta betearaztean.



Horretarako, beharrezkoa da erabakiak hartzeko nazioarteko baliabideak birmoldatzea eta FMI eta BM bertan behera uztea. Beharrezkoa da Nazio Batuak birmoldatzeko aro berri bat, printzipio horietan oinarrituta eta interbentziorako baliabideak ipintzea gizakiaren garapenean, kulturean, hezkuntzan, sanitarian... ondasunak banatzeko eta oinarritzko eskubideak asetzeko instrumentu bezala.

4.- Espekulatuzaile kapital mugimenduei zergak ezarriz, garapenerako fondoen sorrera eta herri txiroei zorraren kondonazioa bultzatu behar da Fondo hauek demokratikoki kudeatuko dira eta aberastasuna banatzeko politikak bultzatzea, teknologia aurrerapenak sozializatzea eta gizarte zein ingurumena garatzeko eredu eraginkorra osatzea izango dute helburu

3.- ATZERRI POLITIKAREN GAINEKO EZTABAIDAREN ONDORIO NAGUSIAK

Iparramerikar inperialismoaren aurrean, Europako Batasunak bere legitimitatea zabaldu nahi du, baita dolar aldean desagertzea etsi ez diren indar erreformista eta burgesiak erakartzea ere. Jakina, irudi faltsu, gezurti eta interesatua da zeharo, zeren Europa barruan eta kanpoan menderatzaile klaseek egindako Gizadiaren aurkako krimen izugarriak ezkututzen baititu, baita bere egungo politika, bere neokolonialismoa edo euroinperialismoa ere. Europak bere eragina zabaltzeko interesa handia duen arren, sarritan europar atzerri politikak nahikoa du estatubatuar inperialismoak burututako eskaerak betetzearekin, bai europar polo barruan sorturiko kontraesanengatik, bai Estatu Batuetako indar militarragatik, bai herritar erresistentziak desagerrarazteko duten interes komunagatik.

Kanpoko zein barruko baldintza hauetan, suertatzen ari diren aldaketen aurrean EBren barruan nazio mailan zanpatutako herriok, Estatu propiorik gabeko Estatuok alegia, babesik eza gogorrena sufritzen dugu biziki. Adibide asko dago nazioarteko transakzioetan edo elkarrizketetan trukatzeko txanpon gisa erabiltzen gaituztela berresteko. Hala, ez dago gure burua defendatzeko modurik.

Egoera honen aurrean, hemen gauden mugimenduok, Europako Batasunaren ATZERRI POLITIKAREN AURREAN EZKERRAREN EKINBIDERAKO ondoko OINARRIAK DEFENDATZERA konprometitzen gara:

- EZ** EBren Atzerri Politikaren baliabide gisa guda erabiltzeari
- EZ** Europar estatuen esku sartzeari militar izaera duten nazioarteko egituretan eta estatubatuar baseak desagertzea, baita hirugarren herrietan dauden europarrak ere: NATO desegin behar da
- EZ** arma lehiaketari eta Europako ejertzito handia egiteari ere **EZ**.
- EZ** Europar transnazionalen menpean dagoen EBren Atzerri Politikari
- EZ EUOPAR IMPERIALISMO BERRIARI**

BAI gudaren kontrako instituzio, gizarte, sindikal eta politika mobilizazioari
BAI europar solidaritate internazionalista sendotzeari, anti-inperialista borroka marko gisa



BAI herrietako autodeterminazio eskubidea eta subiranotasuna onartzeari, baita gizabanako eta gizarte eskubideak ere. .

BAI ekonomia, politika eta gizarte interesak defendatzeari eta, kanpoko zorraren kondonazioaren alde borrokatuz, denon arteko berdintasun eta justizia harremanak bultzatzeari.

BAI MUNDUKO ETA EUROPAKO INTERNAZIONALISTA SOLIDARITATEARI

4.- AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA.

Mundu justu bat berdefinitzeko funtsezko giltzarria

1.- Autodeterminazio eskubidea bada eskubide oso eta unibertuala eta ez *remedial* –“*remedial right*”- batzuek nahi duten moduan. Honek esan nahi du herri batek bere orokortasunean autodeterminatzeko eta bere etorkizunaren jabe izateko eskubidea baduela, herri izateko borondatea duelako eta ez soilik sufrimendua edo eskubideen zanpaketa aldetik oso egoera larriak jasaten dituelako. Horregatik ezker aldeak eskubidea bere osotasunean errekuiperatu behar du barne zein kanpoko dimentsio bikoitzaren kontzeptioan. Izan ere, liberal teoriak inposatutako zatiketarekin apurtu behar du. Honek suposatzen du nazioarteko komunitateak eskubide hori errekonozitu eta horren gaineko erantzukizuna jaso behar duela.

2.- Boterearen aldarazteko polo berrien larrialdia, mundu justuago baten eta barruko ordenamendu berri baten oinarria da. Horretarako munduko *governanza* delakoaren egungo erakundeen gaineko eztabaida ireki behar da. Izan ere, berau burutzeko behar beste prozedura martxan jarri behar da. Nazioarteko Zuzenbidea aurretik aipatutako zutabeetan oinarritu behar da eta eskubide hau betearazi eta errespetaraziko dituen beharrezko organoak sortu behar dira. Era berean, organo hauek estatuen aldetik eskubide hauek urratzeko praktikak debekatu behar dituzte.

3.- Autodeterminazio eta emantzipazioa. Autodeterminazioa bada eskubide kolektibo eta indibiduala, eta zuzenean lotuta dago herrien zein pertsonen emantzipazio kontzeptuari. Emantzipatzaile da, zeren DAD-en oinarritutako gizartea, sortzaile, parte hartzaile eta kritikoa baita; ondorioz, bada alternatiboa egungo kapitalista garapenari. Era berean, gizarte justizia, errenta banaketa eta ingurunearen alde borrokatzea onesten du eta, diskriminatzaile den edozein modu xenofobo, arrazista edo patriarkalari bukaera ematen laguntzen du. Eta emantzipatzaile da, zeren Plantetako herrien kontzertuan subjektu politiko eta juridiko berrien errekonozimenduari aukera ematen baitio, euren artean erlazio berriak sortzen ditu eta.

4.- DAD eta bios-a. Mundu mailako ordena berriak bios bat edo gizarte esparru berri behar du, tentsio konponbide gisa, zeren DAD-ek gizarte berria kokatuko bailuke bio-dibertsitatearen eta heterogeneotasunaren alde, eta inperialismoak zuzenean lagundutako eta eutsitako zanpatzaile mosaikoari alternatiba sortuko bailioke.

5.- DAD eta internazionalismoa txanpon bereko bi aldeak dira. DAD-ek nazioarteko harremanen eta internazionalismoaren berdefinizioa sortzen du. Izan ere, internazionalismoa bada mundu osoko herrien eta emantzipatzaile prozesuen arteko batasun prozesua. Esandakoak, kulturen arteko komunikazioa eta



elkartasuna eragoztean oinarritutako egungo munduko ekonomia-politika harremanetan oinarritzko aldaketa adierazten du.

Horregatik, polizial, baztertzaila eta inperialista den Europako eraikuntza honi aurre egitea ezkerraren lehendabiziko behar larria dela uste dugu

Beste Europa beharrezkoa da. Beste mundua beharrezkoa da!

EDO

Beste Europa behar da. Beste mundua behar da!

Sokoa II.

Etxarri-Aranatzen, 2005eko ekainak 18